

KANALAK

Gure produktua aplikazio bat denez, ez dugu denda fisikorik edukiko. Dena online kudeatuko dugu. Ez dugu bezeroekin harreman zuzenik izango, baina aplikazioan bertan e-mail kontu bat egongo da eskuragarri, erabiltzaileen proposamenak eta iritziak jasotzeko.

Gure aplikazioa bezeroengana iragarkien bidez iritsiko da gehienbat: bai telebistan bai instagram bezalako sare sozialak eskaintzen duten post publizitarioetan. Gainera, influentzer batzuei gure produktua promozionatzea eskatuko diegu, nahiz eta honek kostu handi bat ekar dezakeen, uste dugu oso forma ona dela jendeak gure aplikazioa probatzeko, izan ere, beste pertsona batek zerbait gomendatzen badu, probatzeko gogoia sortzea errazagoa da.

Horrez gain GKE batzuekin lan egin nahi dugu, Greenpeacerekin adibidez. Haiekin harremanetan jartzen saiatuko gara, gure produktua azaltzen, gure produktua ingurumanarentzat onuragarria denez, guk beraien iragarkiak jartzeagatik dirua ematea espero dugu, eta bide batez, gure babesleak izatea lortzea.

Oraingoz ez dugu lantoki finkorik edukiko, Naiararen etxean arituko gara aplikazioa sortzen bere ordenagailuarekin eta han arituko gara hasieran beste zerbait aurkitu arte. Bestela ere, gure aplikazioa bakoitzak bere mugikorretik maneiaturiko du, hau da, gu geu izango gara administratzaileak. Kultur-etxean wifi konexioa doakoa izango da, baina hala eta guztiz ere, aplikazio hau online denez, edozein lekutan erabil daiteke sarea dagoen bitartean.



Bertan, nahi izanez gero hizkuntza aldatu daiteke, 6 hizkuntza izango dira (euskara, katalana, ingelesa, gaztelera, txinera eta frantsesa).